

## Bestelako Xedapenak

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

3966

AGINDUA, 2009ko uztailaren 2koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Hizkuntza Eskola Ofizialetan ikasleak onartzeko eta matrikulatzeko deialdia arautzen duena 2009-2010 ikasturterako Euskal Autonomia Erkidegoan.

Otsailaren 24ko 46/2009 Dekretuak araubide bereziko hizkuntza-ikasketen mailetako -oinarrizkoa, tartekoa, aurreratua eta gaitasun maila- curriculumazartzen du eta ikasketak horiek Euskal Autonomia Erkidegoan jartzen ditu.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergo eta erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketako herri-ikastetxeetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozedura arautzen duen martxoaren 4ko 35/2008 Dekretuaren Bigarren Xedapen Gehigarriak xedatzen duenez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak berariaz ezarritako araudiek arautuko dute ikasleak onartzeko prozedura maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, hezkuntzari buruzkoak, araututako arte-ikasketak, hizkuntza-ikasketak eta kirol-ikasketak irakasten dituzten ikastetxeetan.

Hori dela bide, hauxe

XEDATU DUT:

**1. artikulua.**– Xedea eta aplikazio-eremua.

Agindu honek, 2009-2010 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetan erregimen ofizialean eskoletara doazen ikasleen onarpena eta matrikulazioa arautzen du.

**2. artikulua.**– Hezkuntza-eskaintza eta plazen aukera.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizial bakoitzaren hezkuntza-eskaintza agindu honen I. eranskinean zehazten dena da.

2.– Hizkuntza Eskola Ofizial bakoitzak, Ikastetxeen Zuzendaritzak finkatutako mugen barruan, zenbat talde egongo diren erabakiko du, eta talde bakoitzean gehienez zenbat ikasle, zentroko hizkuntza eta maila bakoitzerako.

## Otras Disposiciones

### DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

3966

ORDEN de 2 de julio de 2009, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regula la convocatoria de admisión y matriculación del alumnado en las Escuelas Oficiales de Idiomas para el curso académico 2009-2010, en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Decreto 46/2009, de 24 de febrero, dispone la implantación de las enseñanzas de idiomas de régimen especial en la Comunidad Autónoma del País Vasco y establece el currículo de los niveles Básico, Intermedio, Avanzado y Aptitud de dichas enseñanzas.

Por otra parte, la Disposición Adicional Segunda del Decreto 35/2008, de 4 de marzo, por el que se regula la admisión de alumnado en los Centros públicos y privados concertados de Educación Infantil, Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria, Bachillerato y Formación Profesional de Grado Medio y de Grado Superior, de la Comunidad Autónoma del País Vasco, determina que la admisión del alumnado en los centros docentes que impartan las enseñanzas artísticas, enseñanzas de idiomas y enseñanzas deportivas reguladas en la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, se regirá por las reglamentaciones específicas que al efecto establezca el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

En su virtud,

DISPONGO:

**Artículo 1.**– Objeto y ámbito de aplicación.

La presente Orden regula la admisión y matriculación del alumnado en régimen oficial presencial para el curso académico 2009-2010 en las enseñanzas de idiomas que se imparten en las Escuelas Oficiales de Idiomas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

**Artículo 2.**– Oferta educativa y plazas disponibles.

1.– La oferta educativa de cada una de las Escuelas Oficiales de Idiomas de la Comunidad Autónoma del País Vasco es la que se determina en el anexo I de la presente Orden.

2.– Cada Escuela Oficial de Idiomas, dentro de los límites que establezca la Dirección de Centros Escolares, determinará el número de grupos y el número máximo de alumnos y alumnas por grupo, para cada uno de los idiomas y niveles que se ofrecen en el centro.

3.– Agindu honek araututako onarpen-prozesuko partaideentzat hizkuntza eta maila bakoitzean dagoen plazen aukera kalkulatzeko, talde bakoitzak guztira dituen postuei kendu behar zaizkie aurreko urteko ikasleak, zentroko errepikatzaileak, eta onartutako arrazoiren bat emanda beste Eskoletatik espedienteak lekualdatuta datozen ikasleak, agindu honen 22. artikuluari jarraituz.

**3. artikulua.**– Eragin-eremuak.

Agindu honen II. eranskinean zehazten dira Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialean eragin-eremuak, horietako bakoitzean ematen den hizkuntza eta maila bakoitzarentzat.

**4. artikulua.**– Harrera-prozesua egin beharra.

1.– Hizkuntza Eskola Ofizialetan sartzeko, ikasleei harrera-prozesua egin behar zaie kasu hauetan:

- a) Eskolara lehenbiziko aldiz datozenean.
- b) Erregimen librean Eskolan matrikulatu izandakoak direnean.
- c) Lehen erregimen ofizialean matrikulatu, baina ikasketak eten eta aurreko ikasturtean matrikulatu ez direnean.
- d) Aurreko urtean erregimen ofizialean matrikulatuta egonik, hurrengo urtean matrikulatzeko lehentasuna galdu izan asistentziako hutsegiteengatik edo arrazoi justifikaturik gabe matrikulari uko eginda, eta berriro irakaskuntza ofizialera bildu nahi dutenean, eskoletara joanez.
- e) Eskolan lehendik ere beste hizkuntza batean matrikulatuta daudenean, erregimen ofizialean.

2.– Hizkuntza Eskola Ofizialetan sartzeko, ez da harrera-prozesurik bete behar kasu hauetan:

- a) Aurreko ikasturtean erregimen ofizialean eta hizkuntza berean Eskolan matrikulatuta zeudenean, eta ez dutenean, asistentziako hutsegiteak metatzeagatik edo arrazoi justifikaturik gabe matrikulari uko eginda, hurrengo ikasturtean matrikulatzeko lehentasuna galdu.
- b) Eskola batetik bestera espedienteak lekualdatzean, aldatu egin delako bizilekua, ikastetxea edo lantokia, dena delakoa agirien bidez justifikatuz, eta baldin eta hizkuntza bereko plazarik badago eskola berrian.

3.– El número de plazas disponibles en cada idioma y nivel, para las personas solicitantes que participen en el proceso de admisión regulado en la presente Orden, será el que resulte de deducir del número total de puestos de cada grupo, la reserva correspondiente al alumnado procedente del curso anterior y alumnos y alumnas repetidores del mismo centro, así como la del alumnado procedente de otras Escuelas que realice un traslado de expediente por alguna de las causas admitidas para el mismo, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 22 de la presente Orden.

**Artículo 3.**– Zonas de influencia.

Las zonas de influencia de las Escuelas Oficiales de Idiomas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, para cada uno de los idiomas y niveles que se imparten en cada una de ellas, es la que se determina en el anexo II de la presente Orden.

**Artículo 4.**– Necesidad de realizar un proceso de admisión.

1.– El acceso a las Escuelas Oficiales de Idiomas requerirá un proceso de admisión en los siguientes supuestos:

- a) Alumnado que acceda por primera vez a la Escuela.
- b) Alumnado que haya estado matriculado en la Escuela en régimen de enseñanza libre.
- c) Alumnado que, habiendo estado anteriormente matriculado en la Escuela en régimen de enseñanza oficial, hubiera interrumpido sus estudios y no se hubiera matriculado en el curso anterior.
- d) Alumnado que, habiendo estado matriculado en la Escuela en régimen de enseñanza oficial en el curso anterior, hubiera perdido la preferencia en la matrícula del curso siguiente, tanto por acumulación de faltas de asistencia como por renuncia a la matrícula sin motivos justificados, y desee incorporarse de nuevo a la enseñanza oficial presencial.

e) Alumnado que esté matriculado en la Escuela en régimen de enseñanza oficial en un idioma distinto de aquél al que pretende acceder.

2.– El acceso a las Escuelas Oficiales de Idiomas requerirá un proceso de admisión en los siguientes supuestos:

- a) Alumnado matriculado en la Escuela en el año académico anterior en régimen oficial y en el mismo idioma, y que no haya perdido, por acumulación de faltas de asistencia o por renuncia a la matrícula sin motivos justificados, la preferencia en la matrícula del curso siguiente.
- b) Traslados de expediente de una Escuela a otra distinta, por cambio de domicilio, de centro de estudios o de lugar de trabajo, justificando documentalmente la circunstancia correspondiente, y siempre que haya plaza del mismo idioma en la nueva escuela.

**5. artikulua.**– Hizkuntzak ikasi ahal izateko baldintzak.

1.– Hizkuntza Eskola Ofizialetan ikasteko, ezinbestekoa izango da gutxienez hamasei urte izatea (ikasketak hasten diren urtean beteak). Ikasten hasitako urtean hamalau edo hamabost urte dituztenek ere ikas dezakete, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan lehen hizkuntza gisa ikasitakoa ez den beste hizkuntza bat ikasi nahi badute.

2.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua daukaten ikasleak atzerriko lehenengo hizkuntza gisa ikasten duten hizkuntzan, oinarrizko mailako bigarren ikasturtean (A2) matrikulatu ahalko dira.

3.– Batxiler-titulua dutenak zuzenean has daitezke, nahi badute, Batxilergoan ikasitako atzerriko lehen hizkuntzaren Tarteko Mailako lehen ikasturtean. Tarteko Mailaren lehen ikasturtera modu horretan sartzeak ez du esan nahi, inola ere, aurreko ikasturteak gainditu direnik, eta, beraz, ez du eskubiderik ematen Oinarrizko Mailaren Ziurtagiria eskuratzeko.

4.– Hizkuntza batean gaitasun nahikoa dutela uste duten pertsonak edozein mailalara sar daitezke autokopapen-prozeduraren bidez. Autokopapen horrek ez du esan nahiko aurreko ikasturteak gainditu direnik, ezta inolako ziurtagiririk eskuratu denik ere.

5.– Espainiar nazionalitatea duten pertsonak ezingo dute ikasi Espainiera Atzerriko Hizkuntza. Beste nazionalitateetako pertsonak ikastetxeko edozein hizkuntza ikas dezakete, beren ama-hizkuntza izan ezik.

6.– Ezin da matrikulatu aldi berean erregimen ofizialean eta libreak ikasturte eta hizkuntza berean.

7.– Ikasleak, erregimen ofizialean, maila bakoitzeko gehienez bi urtez matrikulatu ahal izango dira. Salbuespen gisa, zuzendaritza taldeak, ikasleak hala eskatuta eta dagokion irakasleak proposatuta, matrikulatzeko hirugarren urtea baimendu ahal izango du.

**6. artikulua.**– Onarpen-prozesuaren aurreko informazioa.

Onarpen-prozesua hasi aurretik, Hizkuntza Eskola Ofizialek beren iragarki-taulan agertuko dute, eta hala eskatzen duten ikasleen esku jarriko dute informazio hau:

- a) Eskolan ematen diren hizkuntzak eta ikastaroak.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialetan ikasleak onartzeko araudia.
- c) Eskabideak egiteko epea.

**Artículo 5.**– Requisitos de acceso a las enseñanzas de idiomas.

1.– Para acceder a las enseñanzas de las Escuelas Oficiales de Idiomas será requisito imprescindible tener dieciséis años cumplidos en el año en que se comiencen los estudios. También tendrán acceso las personas que tengan catorce y quince años, cumplidos en el año en que se comiencen los estudios, que deseen cursar las enseñanzas de un idioma distinto al cursado como primer idioma en la Educación Secundaria Obligatoria.

2.– El alumnado que esté en posesión del título de Educación Secundaria Obligatoria podrá matricularse en el segundo curso del Nivel Básico (A2) del idioma que haya cursado como primera lengua extranjera.

3.– Los alumnos y alumnas que estén en posesión del título de Bachillerato podrán acceder directamente, si así lo solicitan, al primer curso de nivel Intermedio de la primera lengua extranjera cursada en el Bachillerato. El acceso de esta forma al curso de nivel Intermedio no supone, de ninguna manera, la superación de los cursos anteriores y, en consecuencia, no otorga derechos de ningún tipo sobre la obtención del Certificado de Nivel Básico.

4.– Las personas que consideren que tienen el dominio de las competencias suficientes de un idioma podrán acceder a cualquier curso a través del procedimiento de autoubicación. Esta autoubicación no supondrá ni el reconocimiento de haber superado los cursos anteriores, ni la obtención de certificado alguno.

5.– Las personas de nacionalidad española no podrán acceder a las enseñanzas de Español Lengua Extranjera. Las personas de otras nacionalidades podrán cursar cualquier idioma que se imparta en el centro, siempre que su lengua materna sea diferente de la solicitada.

6.– En el mismo año académico y para el mismo idioma, un alumno o alumna no podrá matricularse simultáneamente en régimen oficial y libre.

7.– Los alumnos y alumnas podrán matricularse en régimen oficial un número máximo de dos años por curso. Excepcionalmente el equipo directivo, a solicitud del alumno o alumna y a propuesta del profesor o profesora correspondiente, podrá autorizar su matriculación en un tercer año por cada curso.

**Artículo 6.**– Información previa al proceso de admisión.

Antes del inicio del proceso de admisión, las Escuelas Oficiales de Idiomas expondrán en su tablón de anuncios y facilitarán al alumnado que lo solicite la siguiente información:

- a) Idiomas y cursos que se imparten en la Escuela.
- b) Normativa reguladora de la admisión de alumnado en las Escuelas Oficiales de Idiomas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- c) Plazo de formalización de solicitudes.

d) Onartutako ikasleen zerrendak noiz argitaratuko diren, bai eta erreklamazioak aurkezteko epea ere.

e) Berdinketarik balego, eskabideak ordenatzeko zozketaren emaitza, hizkuntza bakoitzean.

f) Mailako probak egiteko eta ebaluatzeko irizpideak.

**7. artikulua.**— Mailako probak.

1.— Hizkuntza Eskola Ofizialek proba zehatzak jarriko dituzte, autokokapen-prozedura, ikasle berrien esku, eskatutako hizkuntza ezagutzen dutenak maila egokian koka daitezten, eskabidea aurkeztu aurretik. Horretarako, [www.eoieuskadi.net](http://www.eoieuskadi.net) web orrian sartu beharko da.

2.— Proba horiek borondatezkoak dira, eta, horien bidez, egiten dituztenek eska dezakete, hala nahi badute, araudiaren arabera dagokien mailan baino gorago onartzea.

3.— Mailako probak didaktika-departmentuek presatuko dituzte, hizkuntza bakoitzeko maila bakoitzean eska daitezkeen edukien arabera.

4.— Matrikulatu nahi duen hizkuntzan ikasleak daukan maila jakiteko balio du probak, besterik gabe, eta bere borondatez erabaki dezake berez dagokion mailan baino gorago onar dezaten eskatzea, baina probaren emaitza positiboak ez du esan nahi, inola ere, onartuta dagoenik.

5.— Mailako proba eginda goiko ikasturte batean sartzek ez du esan nahi, inola ere, aurreko ikasturteak gaindituta dituenik, eta, beraz, ez dizkio ematen azpiko mailen ziurtagiriak.

**8. artikulua.**— Eskabideak aurkeztea.

1.— Hizkuntza Eskola Ofizialetan eskabideak aurkezteko epeak dira 2009ko uztailaren 10 eta 31 artean, biak barne, eta 2009ko irailaren 1 eta 7 artean, biak barne. Era berean, onarpen-eskaerak aurkez daitezke abuztuan, Hizkuntza Eskola Ofizial bakoitza jendearentzat zabalik dagoen egunetan. Inola ere ez da onartuko ezarritako epetik kanpoko eskabiderik.

2.— Ikasle batek bi hizkuntza desberdinetan edo gehiagotan matrikulatu nahi badu, eskabide bana aurkeztu beharko du. Agiri guztiak lehen eskaerarekin batera aurkeztu beharko ditu.

3.— Hizkuntza bakoitzeko eskabide bakarra egin daiteke Eskola berean, eta ez dira onartuko hizkuntza

d) Calendario de publicación de las relaciones de alumnos y alumnas admitidas, así como plazo para la presentación de reclamaciones.

e) Resultado en cada idioma del sorteo para ordenar las solicitudes en casos de empate.

f) Criterios para la elaboración de las pruebas de nivel y para la evaluación de las mismas.

**Artículo 7.**— Pruebas de nivel.

1.— Las Escuelas Oficiales de Idiomas pondrán a disposición del alumnado de nueva admisión pruebas específicas, también denominadas pruebas de autoubicación, con el fin de que las personas con conocimientos del idioma objeto de su petición puedan, con anterioridad a la presentación de su solicitud, ubicarse en el nivel de estudios adecuado a dichos conocimientos. Para ello se deberá entrar en la página web [www.eoieuskadi.net](http://www.eoieuskadi.net).

2.— La realización de estas pruebas será voluntaria y permitirá a las personas que las realicen solicitar, si lo desean, su admisión en un nivel superior al que reglamentariamente tengan derecho de acuerdo con la normativa vigente.

3.— Las pruebas de nivel serán preparadas por los departamentos didácticos, ajustándose a los contenidos exigibles para poder cursar cada uno de los niveles de cada idioma.

4.— El resultado de la prueba no tendrá más efecto que orientar al alumno o alumna sobre el nivel que posee en el idioma en el que quiere matricularse, para que voluntariamente decida, si así lo desea, solicitar su admisión en un nivel superior al que reglamentariamente le corresponda, sin que el resultado positivo de la prueba pueda entenderse, de ninguna manera, en el sentido de que la persona solicitante ha sido admitida.

5.— El acceso mediante la correspondiente prueba de nivel a un determinado curso no supone, de ninguna manera, la superación de los cursos anteriores y, en consecuencia, no otorga derechos de ningún tipo sobre la obtención de los certificados de los niveles inferiores al curso en el que el alumno o alumna se ubica.

**Artículo 8.**— Presentación de solicitudes.

1.— Los plazos de presentación de solicitudes de admisión en las Escuelas Oficiales de Idiomas serán los periodos comprendidos entre los días 10 y 31 de julio de 2009, ambos inclusive, y 1 y 7 de septiembre de 2009, ambos inclusive. Asimismo se podrán presentar solicitudes de admisión en el mes de agosto en aquellos periodos en los que cada Escuela Oficial de Idiomas permanezca abierta al público. En ningún caso se admitirán solicitudes fuera de los plazos establecidos.

2.— Si un alumno o alumna desea matricularse en dos o más idiomas diferentes deberá presentar una solicitud para cada uno de ellos. Deberá presentar la documentación completa junto con la primera solicitud.

3.— En cada idioma las personas solicitantes podrán presentar una solicitud en una única Escuela, no ad-

bererako hainbat zentroan aurkeztutako eskabideak. Norbaitek hizkuntza eta maila bererako hainbat eskabide aurkezten baditu Eskola batean baino gehiagotan, denak baztertuko dira.

4.– Onarpen-eskabideak, dagozkion zentroetan doan banatuko den inprimakia erabiliz beteko dira. Eskabidea eskatutako Zentroan aurkeztuko da.

5.– Eskabideak egiteko epea ireki aurretik ez da eskabiderik onartuko. Epe barruan aurkeztutako eskabide guztiak onartu egingo dira eta, behar izanez gero, barematu egingo dira.

6.– Eskabidea jasotzen duen ikastetxeak eskaera egileari horren kopia edo ordezkagiria emango dio, eguna eta zigilua jarrita, eskaera egiaztatzeko.

7.– Eskabideko inprimakiari erantsiko zaizkio barematzeko egoerei dagozkien agiriak. Eskabideak onartzeko epea amaitu ondoren, ez da onartuko agiri berririk, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluan eskaeraren izapideak egiteko, akatsak zuzentzeko eta derrigorrezko agiriak aurkezteko ezartzen den hamar eguneko epearen kaltetan izan gabe.

Eskatzaileak datu faltsuak emanez gero edo informazioa ezkatutuz gero, dagozkion eskubideak galduko ditu.

Puntuak ematen dituen agiriren bat ez aurkezteak atal edo azpiatal horretan zero puntu lortzea dakar; dena den, horrek ez du eskabidea ezeztatzen, ezta baremoko gainerako ataletako edo azpiataletako puntuazioak ere.

Eskabideak barematzeko aurkezten diren agirien kopia originalekin erkatuta egiaztatu beharko dira.

8.– Hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonen horren berri eman behar diote zentroari, eskabidea aurkezterakoan. Adierazi ezean, ez zaie behar lezaketen laguntza emango.

9.– Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitxategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorritik, deialdiko parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, fitxategi batean sartuko dira, onartzeko eta matrikulatzeko deialdi hau eta beronekin zerikusirik duen beste edozein prozedura edo administrazio-espeditante kudeatzeko, bai eta deialdira biltzen direnei deialdiaren garapenaren berri emateko ere. Fitxategi horren arduraduna Ikastetxeen Zuzendaritza da. Sarbide-, zuzenketa-, ezabatze- eta aurkatze-eskubideak erabiltzeko Ikaste-

mitiéndose solicitudes cuando se presenten en varios centros para un mismo idioma. Si una persona presenta solicitudes para el mismo idioma en más de una Escuela, todas ellas serán rechazadas.

4.– Las solicitudes de admisión se formalizarán en el impreso que se facilitará gratuitamente en los correspondientes Centros. La solicitud se presentará en el Centro solicitado.

5.– No se admitirán solicitudes antes de la apertura del plazo establecido. Todas las solicitudes que se presenten durante el plazo, deberán ser admitidas y, en su caso, baremadas.

6.– El Centro que reciba la solicitud entregará a cada solicitante una copia o resguardo con fecha y sello, que acredite su petición.

7.– Junto con el impreso de solicitud se adjuntará la documentación pertinente que acredite las situaciones objeto de baremación. No se admitirá la aportación de nuevos documentos una vez cerrado el plazo de admisión de solicitudes, sin perjuicio del periodo de diez días establecido en el artículo 71 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, para la subsanación de errores y aportación de los documentos preceptivos para que la solicitud sea tramitada.

La falsedad en los datos aportados o la ocultación de información por parte de las personas solicitantes dará lugar a la pérdida de los derechos que les pudieran corresponder.

La no presentación de alguno de los documentos que dan derecho a puntuación conlleva obtener cero puntos en el apartado o subapartado correspondiente, si bien este hecho no anula la validez de la solicitud, ni las puntuaciones de los restantes apartados o subapartados del baremo.

Las copias de documentos que se entreguen para la baremación de las solicitudes deberán ser verificadas con los originales.

8.– Las personas con necesidades educativas especiales deberán poner esta circunstancia en conocimiento del Centro en el momento de presentar su solicitud. De no hacerlo así no se les proporcionarán los apoyos que pudieran precisar.

9.– De conformidad con la Ley Orgánica 15/1999, de 13 diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, y con la Ley 2/2004, de 25 de febrero, Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, los datos personales recogidos en la tramitación de esta convocatoria de admisión y matriculación, cuyo tratamiento y publicación es autorizado por los y las participantes en la misma, serán incluidos en un fichero cuyo objeto será gestionar la presente Orden y cualquier otro procedimiento o expediente administrativo relacionado con la misma, así como para informar a las personas concurrentes a dicha convocatoria de su desarrollo. La Dirección de Centros Escolares es la responsable de

txeen Zuzendaritzara jo beharko da, helbide honetara: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

**9. artikulua.**– Baremazioa.

1.– Eskabideen kopurua dauden plazzen berdina edo txikiagoa denean, aurkeztutako eskabide guztiak onartuko dira. Nolanahi ere, baremazioa egin beharko da, ordutegiak aukeratzeari begira eskabideak ordenatzeko.

2.– Hizkuntza eta maila jakin bateko eskabideak eskainitako plazak baino gehiago direnean, eskatzaileen baremazioa egin beharko da, agindu honen III. eranskineko baremoari jarraituz, eta hurrengo artikuluetako arauak aplikatuz.

Zentroko administrazio-langileek agiriak berrikusi, eta bakoitzari baremoaren atal eta azpiatal bakoitzean dagozkion puntuak proposamena egingo dute. Zentroko Ordezkaritza Organo Gorenari dagokio, edo Organo horren baitan berriaz sortutako Batzordeari, eskabide guztien baremazioa onartzea.

3.– Berdinketarik egonez gero, banan-banan konpartutako dira baremo-irizpideetan lortutako puntu-kopuruen arabera, jarraian agertzen den ordenari jarraituz:

- a) Puntuaziorik altuena adinaren atalean.
- b) Puntuaziorik altuena bizilekuaren edo lan egiteko edo ikasteko lekuaren hurbiltasunaren atalean.
- c) Puntuaziorik altuena minusbaliotasunaren atalean.
- d) Puntuaziorik altuena familia ugariaren atalean.
- e) Puntuaziorik altuena egoera profesionalaren edo akademikoaren atalean.

4.– Aurreko irizpide horiek aplikatu ostean berdinketak jarraitzen badu, eskabideak deituren eta izenaren ordena alfabetikoa jarraituz ordenatuko dira (lehen deitura, bigarren deitura eta izena), agindu honen 10. artikuluko zozketaren arabera hizkuntza bakoitzarentzat ateratako letratik hasita.

Izen-deituren eta izenen ordena NANean agertzen dena (AIZ edo pasaporte, atzerritarren kasuan) izango da. Deitura bat NANean edo AIZan hasten bada partikula batekin (de, del, al, la, etab.), horixe hartuko da kontuan deituraren hasierako letra moduan.

este fichero. Los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición se podrán ejercer ante la Dirección de Centros Escolares, dirigiéndose para ello a la calle Donostia-San Sebastián, 1, 01010, Vitoria-Gasteiz.

**Artículo 9.**– Baremación.

1.– En los casos en los que el número de solicitudes sea igual o inferior al número de plazas existentes quedarán admitidas todas las solicitudes presentadas. No obstante, será necesario proceder a la baremación con objeto de ordenar las solicitudes de cara a la elección de horarios.

2.– Cuando para un determinado idioma y nivel el número de solicitudes sea mayor que el número de plazas ofrecidas, se deberá proceder a la baremación de las personas solicitantes, de acuerdo con el baremo establecido en el anexo III de la presente Orden y con las normas de aplicación del mismo que figuran en los siguientes artículos.

El personal administrativo del centro deberá revisar la documentación presentada por las personas solicitantes y, de acuerdo con la misma, elaborar la propuesta de puntuación que corresponda a cada una de ellas en todos y cada uno de los apartados y subapartados del baremo. Corresponde al Órgano Máximo de Representación del centro, o una Comisión específicamente constituida al efecto dentro de dicho Órgano, aprobar la baremación de todas las solicitudes.

3.– En caso de empate, éste se dirimirá atendiendo a la mayor puntuación obtenida en los criterios del baremo comparándolos uno a uno y en el orden indicado a continuación:

- a) Mayor puntuación obtenida en el apartado de edad de la persona solicitante.
- b) Mayor puntuación obtenida en el apartado de proximidad del domicilio o del lugar de trabajo o estudio de la persona solicitante.
- c) Mayor puntuación obtenida en el apartado de situación de discapacidad.
- d) Mayor puntuación obtenida en el apartado de pertenencia a Familia Numerosa.
- e) Mayor puntuación obtenida en el apartado de situación profesional o académica.

4.– Si aplicados los criterios anteriormente establecidos persiste el empate, se ordenarán las solicitudes por orden alfabético de los apellidos y nombre (primer apellido, segundo apellido y nombre), comenzando por la letra resultante para cada idioma en el sorteo regulado en el artículo 10 de la presente Orden.

El orden de apellidos y nombres de las personas solicitantes y la denominación de los mismos serán exclusivamente los que figuren en su DNI (NIE o pasaporte en el caso de personas extranjeras). Si un apellido comienza en el DNI o NIE o pasaporte por una partícula (de, del, al, la etc.) la misma será tenida en cuenta a efectos de letra de comienzo de dicho apellido.

**10. artikulua.**– Berdinketa dagoenean eskabideak ordenatzeko zozketa.

Berdinketa dagoenean eskabideak ordenatzearen, maiatzaren 14an Durangoko Hizkuntza Eskola Ofizialean zozketa egingo da, eta emaitza hori aplikatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizial guztietan.

**11. artikulua.**– Eskatzailearen bizilekuari edo lan egiteko edo ikasteko lekuari dagokion baremoa aplikatzeko arauak.

1.– Atal honi dagokion puntuazioa, arrazoi hauetako batengatik bakarrik emango da: eskatzailearen bizi-lekua, lantokia edo ikasteko tokiarengatik.

2.– Eskatzailearen bizilekua bat ez badator NANEkoarekin, errolda-agiriaren bidez ziurtatuko da.

3.– Besterentzat lan egiten duten langileen kasuan, eskatzailearen lantokia ziurtatuko da bertako titularrak edo langileen arduradunak egindako agiri baten bidez.

Norberaren konturako jarduerak eginez gero, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren alta-ziurtagiriak kreditatuko du lantokia. Indarreko legediak ez badu behartzen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda izatera, irekiera-lizentziaren fotokopia konpulsatua aurkeztu beharko da, dagokion udalak emandakoa.

4.– Ikasteko tokizat hartuko da ikaskuntza arautuak egiten diren zentroa, edozein izanik ere maila, eta hori ziurtatzeko zentroak agiri bat luzatuko du, bertan zehaztuz eskatzailea ikasturte horretan egiten ari den ikasketak eta maila.

**12. artikulua.**– Minusbaliotasun-egoerari dagokion baremoa aplikatzeko arauak.

1.– Atal honi dagokion puntuazioa, eskatzaileak minusbaliotasun-egoeran dagoenean, edo, adinez txikia bada, ezintasunen bat dutenak aita, ama, legezko tutorea edo anai-arrebaren bat direnean emango da bakarrik.

2.– Minusbaliotasuna egiaztatzeko, dagokion Lurralde Historikoko Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuek edo estatuko antzeko beste organo batek emandako ziurtagiria aurkeztu behar da. Minusbaliotasunaren aitortpen legala adierazi behar du ziurtagiri horrek eta minusbaliotasun gradua % 33koa edo gehiagokoa dela jakinarazi.

**Artículo 10.**– Sorteo para ordenar las solicitudes en casos de empate.

En los casos de empate, las solicitudes se ordenarán de acuerdo con el resultado del sorteo celebrado el día 14 de mayo en la Escuela Oficial de Idiomas de Durango, cuyo resultado será de aplicación en todas las Escuelas Oficiales de Idiomas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

**Artículo 11.**– Normas de aplicación del apartado del baremo relativo al domicilio o lugar de trabajo o estudio de la persona solicitante.

1.– La puntuación correspondiente a este apartado se otorgará únicamente por uno de los motivos expresados: domicilio, lugar de trabajo o lugar de estudio de la persona solicitante.

2.– El domicilio de la persona solicitante, en el caso de no coincidir con el de su DNI, se acreditará mediante el correspondiente certificado de empadronamiento.

3.– El lugar de trabajo de la persona solicitante se deberá acreditar, en el caso de los trabajadores y trabajadoras por cuenta ajena, mediante una certificación expedida al efecto por el titular o por el responsable de personal de la empresa en la que trabaje, en la que se haga constar esta circunstancia.

En el caso en que se desarrolle la actividad por cuenta propia, el lugar de trabajo se acreditará mediante una certificación acreditativa del alta en el Impuesto de Actividades Económicas. En el supuesto en que, de acuerdo con la normativa vigente, no exista obligación legal de estar dado de alta en el Impuesto de Actividades Económicas, se deberá presentar una fotocopia compulsada de la licencia de apertura, expedida por el Ayuntamiento correspondiente.

4.– Se entenderá como lugar de estudio de la persona solicitante el centro donde curse enseñanzas de carácter reglado, cualquiera que sea el nivel de estudios que esté realizando, y se acreditará mediante un certificado emitido por el centro correspondiente en el que se especifiquen las enseñanzas y el nivel que la persona solicitante está cursando en el actual año académico.

**Artículo 12.**– Normas de aplicación del apartado del baremo relativo a la situación de discapacidad.

1.– La puntuación correspondiente a este apartado se otorgará únicamente por discapacidad de la persona solicitante o bien, cuando la persona solicitante sea menor de edad, por existir una situación de discapacidad en su padre, su madre, tutor o tutora legal o de alguno de sus hermanos o hermanas.

2.– La discapacidad se acreditará mediante certificado expedido por el Departamento de Servicios Sociales de la Diputación Foral del Territorio Histórico correspondiente u órgano estatal similar, en el que conste el reconocimiento legal de minusvalía de la persona afectada con un grado de discapacidad igual o superior al 33%.

3.– Senideren baten minusbaliotasuna alegatzen denean, eskatzailea adinez txikia dela ziurtatzeko erakutsiko da NANA (AIZ edo pasaporte, atzerritarren kasuan), edo Familia Liburua.

4.– Anaia-arreba, aita edo ama izatea egiaztatzeko, familia-liburuaren kopia aurkeztuko da. Ikaslearen lege-tutorearen izaera, berriz, sententziaren kopia edo dagokion ziurtagiri ofiziala aurkeztuz kreditatuko da.

5.– Atal honi dagokion puntuazioa ematerakoan, anaia-arrebatzat hartuko dira familia-unitatean legezko tutoretza-egoeran edota behin betiko nahiz adopzio aurreko familia-harrera egoeran dauden adingabeak.

6.– Halaber, atal honetan ematen den puntuazioa zenbatzeko garaian, ikaslearen zaintza guraso bakar baten gain badago, guraso horren legezko bikotekidea ere ikaslearen aitatzat edo amatzat hartuko da. Pertsona horren seme-alabak ere anaia-arrebatzat hartuko dira ikaslearekin batera bizi badira. Egoera hori dagokion errolda-agiriaren bidez egiaztatuko da.

7.– Ikaslearen zaintza duen gurasoaren bikotekidea dela ziurtatzeko, guraso horri zaintza ematen dion epaiaren kopia aurkeztu behar da, eta biak elkarrekin ezkondu daudela egiaztatzen duen familia-liburua edota izatezko bikote direla adierazten duen ziurtagiri ofiziala ere aurkeztu behar da.

**13. artikulua.**– Familia Ugariko kide izateari dagokion baremoa aplikatzeko arauak.

Familia ugaria dela egiaztatzeko, estatuko edozein autonomia-erkidegok emandako agiri ofiziala aurkeztu behar da.

**14. artikulua.**– Eskatzailearen adinari dagokion baremoa aplikatzeko arauak.

Jaiotza-data Nortasun Agiri Nazionalaren bidez (AIZ edo pasaporte, atzerritarren kasuan), edo jaiotza-agiriaren bidez ziurtatuko da.

**15. artikulua.**– Egoera profesional edo akademikoari dagokion baremoa aplikatzeko arauak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo edo Lanbide Heziketakako Prestakuntza Zikloko zentro publiko edo kontzertatu bateko edo Hizkuntza Eskola Ofizial bateko irakasle izatea ziurtatuko da ikasturte horretan lanean ari den zentroko zuzendariaren agiri baten bidez, non agertuko diren eskatzailearen izen-deiturak, NANA eta irakasten dituen mailak.

3.– En el caso de que se alegue la discapacidad de algún familiar se deberá acreditar la minoría de edad de la persona solicitante mediante su DNI (NIE o pasaporte en el caso de las personas extranjeras), o libro de familia.

4.– La condición de hermano, hermana, padre o madre se acreditará mediante fotocopia del Libro de Familia. La condición de tutor o tutora legal del alumno o alumna se acreditará mediante copia de la sentencia o por medio del certificado oficial correspondiente.

5.– A efectos de la aplicación de la puntuación correspondiente a este apartado, tendrán también la consideración de hermanos o hermanas las personas menores de edad que se encuentren en situación de tutela o acogimiento familiar permanente o preadoptivo legalmente constituido dentro de la misma unidad familiar.

6.– Asimismo, a efectos de la aplicación de la puntuación correspondiente a este apartado, en el caso de que la custodia del alumno o alumna esté otorgada a uno solo de sus progenitores, se considerará también como padre o madre del alumno o alumna a la persona que tenga la condición legal de pareja del progenitor que tiene la custodia. Los hijos e hijas de esta persona se considerarán también como hermanos o hermanas del alumno o alumna cuando convivan con ésta. Esta circunstancia deberá ser acreditada mediante el correspondiente Certificado de empadronamiento.

7.– La condición de pareja del progenitor que tiene la custodia del alumno o alumna se acreditará mediante copia de la sentencia por la que se otorga la custodia a ese progenitor y por fotocopia del Libro de Familia donde conste su matrimonio con la otra persona o por Certificación oficial donde conste la condición legal de pareja de hecho de la misma.

**Artículo 13.**– Normas de aplicación del apartado del baremo relativo a la pertenencia a Familia Numerosa.

La condición de familia numerosa se acreditará mediante el correspondiente título oficial expedido por cualquiera de las Comunidades Autónomas del Estado.

**Artículo 14.**– Normas de aplicación del apartado del baremo relativo a la edad de la persona solicitante.

La fecha de nacimiento se justificará mediante el Documento Nacional de Identidad (NIE o pasaporte en el caso de las personas extranjeras), o Certificado de nacimiento.

**Artículo 15.**– Normas de aplicación del apartado del baremo relativo a la situación profesional o académica.

1.– La condición de profesor o profesora de algún centro público o privado de Educación Infantil, Primaria, Secundaria Obligatoria, Bachillerato o Ciclos Formativos de Formación Profesional, de alguna Escuela Oficial de Idiomas o de alguna Universidad de la Comunidad Autónoma del País Vasco se acreditará aportando un certificado del Director o Directora del centro donde la persona solicitante presta servicios, en la que conste su nombre y apellidos, DNI, y nivel que imparte.

2.– Unibertsitate-ikasketak, Batxilergoa, Erdi edo Goi Mailako Prestakuntza Zikloak, edo Musika, Dantza, Arte edo Kirol Ikasketa arautuak egiten ari izana ziurtatuko da ikasturte horretan ikasten ari den zentroko Agiri baten bidez, non agertuko diren bere izen-deiturak, NANA eta zein ikasketetan dagoen matrikulatuta.

3.– Azken hiru urteotan unibertsitate-ikasketak, Batxilergoa, Erdi edo Goi Mailako Prestakuntza Zikloak, edo Musika, Dantza, Arte edo Kirol ikasketa arautuak amaitu izana ziurtatuko da ikasketak egindako zentroaren agiri baten bidez, non agertuko diren bere izen-deiturak, NANA eta ikasketak amaitutako urtea. Urte hori 2006a edo ondorengoa bada puntuatuko da.

**16. artikulua.**– Zentroko Ordezkaritza Organo Gorenak nahierara erabakitako beste egoera batzuei dagokien baremoa aplikatzeko arauak.

1.– Hizkuntza Eskola Ofizialetako Ordezkaritza Organo Gorenak ezar dezakete, hala nahi izanez gero, irizpide bat edo gehiago eskatzaileei puntu osagarriak emateko. Puntuazio osagarri horretan, gehienez ere, bost puntu emango dira.

2.– Puntuazio osagarri hori emateko irizpideek objektiboak izan behar dute; aginpidedun organoak onartu behar ditu, eta eskabideak aurkezteko epea ireki baino lehen jakinaraziko dira.

3.– Puntuak arrazoi bakar bategatik edota hainbat arrazoiengatik eman daitezke. Hainbat arrazoiengatik ematen badira, puntuak banatzeko bi aukera daude: guztira eman daitezkeen puntuak arrazoi horien artean banatu edo, arrazoi horietako bat betetzen denean, puntu guztiak eman.

4.– Puntu gehigarri hori emateko irizpideak desberdinak izan daitezke maila bakoitzean.

5.– Atal honetako puntuak emateko irizpideen artean, baremoaren beste ataletan aintzat hartutako arrazoi eta egoerak ere egon daitezke. Hartara, arrazoi eta egoera horiengatik ematen den puntuazioa gehituko da. Baina kontuan hartu behar da atal honetan gehienez ere bost puntu osagarri eman daitezkeela.

6.– Atal honetarako hartutako irizpideen artean ezin dira inolaz ere onartu jaiotzagatik, arrazagatik, sexuagatik, erlijioagatik, iritziagatik edota antzeko ezaugarri edo egoeragatik diskriminatzaileak diren irizpideak.

2.– La situación académica de la persona solicitante que se encuentre cursando estudios universitarios o de Bachillerato, Ciclos Formativos de Grado Medio o Superior o Enseñanzas regladas de Música, Danza, Artísticas o Deportivas, se acreditará mediante Certificado del centro en el que esté cursando estudios en el que conste su nombre y apellidos, DNI y estudios en los que está matriculado.

3.– La situación de las personas que hayan finalizado en los últimos tres años sus estudios universitarios o de Bachillerato, Ciclos Formativos de Grado Medio o Superior o Enseñanzas regladas de Música, Danza, Artísticas o Deportivas se acreditará mediante la presentación de un Certificado del centro en el que cursó los estudios correspondientes, en la que conste su nombre y apellidos, DNI, y año de finalización de los mismos. Se otorgará la puntuación si dicho año es el año 2006 o posterior.

**Artículo 16.**– Normas de aplicación del apartado del baremo relativo a otras circunstancias libremente determinadas por el Órgano Máximo de Representación del centro.

1.– Los Órganos Máximos de Representación de las Escuelas Oficiales de Idiomas podrán establecer, si así lo desean, uno o varios criterios para otorgar a los solicitantes una puntuación adicional de hasta cinco puntos como máximo.

2.– Los criterios por los que se otorgue en cada caso esta puntuación adicional deberán ser objetivos y deberán haberse aprobado por el órgano competente y hechos públicos con anterioridad al comienzo del correspondiente periodo de entrega de solicitudes.

3.– La puntuación podrá otorgarse por uno o por varios conceptos. Cuando se otorgue por varios conceptos podrá repartirse entre dichos conceptos o bien otorgarse si se cumple uno cualquiera de ellos.

4.– Los criterios para otorgar esta puntuación adicional podrán ser diferentes para cada uno de los cursos o niveles.

5.– Entre los criterios por los que se otorgue la puntuación correspondiente a este apartado se podrán incluir uno o varios de los conceptos correspondientes a los otros apartados del baremo, cuya puntuación se verá incrementada de esta forma en la cantidad que se determine, teniendo en cuenta que, en total, nunca se podrá conceder más de cinco puntos adicionales por este apartado.

6.– Entre los criterios aprobados para este apartado no podrán establecerse, en ningún caso, criterios discriminatorios por razón de nacimiento, raza, sexo, religión, opinión o cualquier otra condición o circunstancia similar, ni podrá otorgarse puntuación alguna condicionada al resultado de pruebas o exámenes específicamente convocados al efecto.

7.– Hizkuntza Eskola Ofizialetako Ordezkaritza Organo Gorenei dagokie zehaztea zein agiri aurkeztu behar diren atal honetan aintzat hartuko diren irizpideak betetzen direla ziurtatzeko.

**17. artikulua.**– Eskatzaileen behin-behineko zerrenda barematuak eta ordenatuak.

1.– 2009ko irailaren 14an Hizkuntza Eskola Ofizialek argitaratuko dituzte eskatzaileen behin-behineko zerrenda barematuak eta ordenatuak, 2009-2010 ikasturtean eskainiko diren ikastaro eta hizkuntza bakoitzean. Zerrenda horiek ordenatuta joango dira, lortutako puntuazioaren eta berdinketa apurtzeko irizpideen arabera, eta zehaztuko dute eskatzaile bakoitzak lortutako puntuazioa baremoaren atal eta azpiatal bakoitzean.

2.– Irailaren 15 eta 16an, eskatzaileek behin-behineko zerrenden erreklamazioak aurkez ditzakete. Erreklamazioa dagokion Hizkuntza Eskola Ofizialean aurkeztu behar da.

3.– Eskola Bakoitzeko Ordezkaritza Organo Gorenak, edo Organo horren barruan berariaz eratutako Batzordeak erreklamazioak aztertu eta hartuko ditu erabakiak, puntuazioa aldatu hala dagokionean, eta, ondorioz, onartuen eta ez-onartuen zerrenda berriak egin.

**18. artikulua.**– Eskatzaileen behin betiko zerrenda barematuak eta ordenatuak eta onartuen eta ez-onartuen behin-behineko eta behin betiko zerrendak.

1.– 2009ko irailaren 23an Hizkuntza Eskola Ofizialek argitaratuko dituzte eskatzaileen behin betiko zerrenda barematuak eta ordenatuak, 2009-2010 ikasturtean eskainiko diren ikastaro eta hizkuntza bakoitzean. Zerrenda horiek ordenatuta joango dira, lortutako puntuazioaren eta berdinketa apurtzeko irizpideen arabera, eta zehaztuko dute eskatzaile bakoitzak lortutako puntuazioa baremoaren atal eta azpiatal bakoitzean. Hala ere, Hizkuntza Eskola Ofizialek maila eta hizkuntza bakoitzean onartuak eta ez-onartuak izan diren pertsonen behin-behineko zerrendak argitaratuko dituzte.

2.– Onartuen eta ez-onartuen behin-behineko zerrenden kontrako erreklamazioa aurkez daiteke Hizkuntza Eskola Ofizialean bertan. Erreklamazioa aurkezteko epea 2009ko irailaren 25ean amaitzen da.

3.– Hizkuntza Eskola Ofizialek aurkeztutako erreklamazioak ebatziko dituzte eta onartu eta ez-onartuen behin betiko zerrenda 2009ko irailaren 28an argitaratuko dute.

4.– Onartuak izan ez direnek itxarote-zerrenda bat osatuko dute, geratu diren ordena berean.

7.– Corresponde también a los Órganos Máximos de Representación de las Escuelas Oficiales de Idiomas determinar los requisitos exigidos para la acreditación del cumplimiento de cada uno de los criterios que hayan establecido en este apartado.

**Artículo 17.**– Listas provisionales de personas solicitantes baremadas y ordenadas.

1.– El día 14 de septiembre de 2009 las Escuelas Oficiales de Idiomas harán públicas las listas provisionales de personas solicitantes baremadas y ordenadas en cada uno de los cursos e idiomas que vayan a impartir en el curso 2009-2010. Estas listas irán ordenadas, de acuerdo a la puntuación obtenida y criterios de desempate establecidos, y especificarán la puntuación obtenida por cada solicitante en todos y cada uno de los apartados y subapartados del baremo.

2.– En los días 15 y 16 de septiembre las personas solicitantes podrán presentar reclamaciones a las listas provisionales. La reclamación deberá presentarse en la Escuela Oficial de Idiomas correspondiente.

